

KONTROL MOZIOA

PLAZA-HAUNDIN (LUIS MARTIN SANTOS PLAZA) GUNE ESTALI BERRIA DELA ETA

Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko ekainaren 20an Gune Publikoko Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2015eko abenduan, Egiako Plaza-Haundin estalki berria eraikitzeko iradokizuna luzatu genion EH Bildutik Udal Gobernuari eta horrez gain, bi kontu-sail proposatu genituen 2016ko aurrekontuetarako zuzenketa modura: estaldura berriaren proiektuaren idazketa (30.000 euro) eta partaidetza prozesua egitea (5.000 euro).

Hain zuzen, azkenaldian, bizilagunek eta auzo elkarteak Plaza-Haundin estalkia eraberritzea eskatu dute behin baino gehiagotan. Izan ere, estalki honek gabezia nabarmenak erakutsi ditu eguraldi zakarretik babesteko plaza.

Zentzu honetan, berriki, euren etengabeko eskaerei jaramonik egiten ez zaiela ikusirik, 2016ko maiatzaren 16a, Egia Bizirik auzo elkarteak eskaera luzatu zion Udal Gobernuari - alkatearekin berarekin ere egin zuten bilera- partaidetza prozesu baten bitartez plazaren estalkia zehaztu eta prozesu horren arabera proiektua egin eta obra gauzatzeko. Eskaera honek Egia auzoaren aldetik babes zabala jaso du:

- 1.160 sinadura
- 25 kultur, hezkuntza, kirol, politika, aisialdi, gazte, guraso... elkarteren babesa ere jaso du.

Ekainaren 20ko kontrol batzordeetan, ordea, Udal Gobernuak ez zigun inongo azalpenik eman eskaera honen inguruan. Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako kontrol mozio hau aurkezten du.

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari aintzat har dezala Egia Bizirik auzo elkarteak, 1.160 bizilagunek eta auzoko beste 25 eragilek, 2016ko maiatzaren 16an, Udalari luzatutako eskaera.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

2.- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari parte hartze prozesu bat antola dezala auzotarren artean erabakitzeke Luis Martin Santos plazan nolako estalkia nahi duten eta zertarako.

3.- Udaltzarak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari parte hartze prozesuaren ondorioekin proiektua osatu eta beharrezkoak diren obrak egin ditzala Luis Martin Santos plazan.

Donostian, 2016ko ekainaren 24a

Axier Jaka Goikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia